



*Ikasturte berri on, gure laguntzaile fin eta leialak:*

*Ilusioz eta gogoz hasi dugu bigarren mailako kurtso hau eta, dagoeneko oporrak ahaztuta ditugunez, hemen gabiltza jo eta ke lanean zuen seme-alabekin.*

*Egia esatea nahi baduzue, iazko kurtсотik gelditu zaigun oroimen politenetakoa, zuek, guraso maiteok, gure bidaietan zehar eskaini zeniguten laguntza paregabea da. A zer nolako jarrera bikaina! Guk zerbait eskatu eta... da! Hurrengo egunerako gela paperez eta liburuz gainezka! Ba ote dago munduan zuek bezain guraso jatorrik?*

*Beno, eta lausenguen ondoren, goazen harira!*

*Kurtso hasiera honetan, familiari buruzko gaia lantzen ari garenez, argazki dezente beharko ditugu liburuan itsatsi ahal izateko. Asko direnez, zerrenda batean jarriko dizkizuegu zuen seme-alabekin batera aukeratu ditzazuen (horretarako arazorik bazenute, ahal duzuen bidali eta marrazki bidez e.a konponduko gara):*

- *Edozein neurrikoak:*
- *Amarena, umetan edo orain baino gazteagoa (adierazi haurrari zenbat urte zenituen).*
- *Aitarena, umetan edo orain baino gazteagoa (adierazi haurrari zenbat urte zenituen).*
- *Amarena, gaur egungoa.*
- *Aitarena, gaur egungoa.*
- *Zuen seme-alabarena jaioberritan.*
- *Nortasun Agiriaren tamainakoak eta gaur egungoak:*
- *Aitarena*
- *Amarena*
- *Aiton-amonena*
- *Eta zuen seme-alaba bakoitzarena.*

*Oraingo honetan nahiko lan jarri dizuegu, ezta? Proposamen gisa, asko maite duzuen argazkiren bat ikastolara ekartzeko aukeratzen baduzue eta pena handia ematen badizue, beti duzue aukera koloretako fotokopiak bidaltzekoa!*

*Mila esker zuen laguntzagatik eta laster arte.*